



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko azaroaren 16an

98 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

—(1995etik 1999ra) “Ezgaituak” aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

**G Saila:**

**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

## **(1995etik 1999ra) “Ezgaituak” aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 9an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak (1995etik 1999ra) “Ezgaituak” aurrekontu-programari buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **(1995etik 1999ra) “Ezgaituak” aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (4. or.).
- IV. Ondorioak eta gomendioak (5. or.).

#### **Eranskinak:**

1. Organigrama (15. or.).
2. 1995-1999 programaren aurrekontu-bilakaera (16. or.).
3. Zirkularizaturiko entitateen zerrenda (17. or.).
4. Nafarroako minusbaliatuen errolda (17. or.).
5. Programako laguntzak eta diru laguntzak nagusiki norentzat (18. or.).
6. Ezgaitasun fisiko eta psikikoen arloetan diharduten entitateen ezaugarriak eta kopurua (18. or.).

#### **I. SARRERA: PROGRAMAREN DESKRIBAPENA.**

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 1999ko urriaren 19an egindako eskaeraren ondorioz, 2000. urterako Kontuen Ganbarak duen Jar-

duketa Planean Nafarroako Gobernuaren “Ezgaituak (1995-1999)” aurrekontu-programaren fiskalizazioa sartu da.

Parlamentuak eginiko eskaera 1995etik 1999ra bitarteko ekitaldiei buruzkoa bada ere, atal honetan –eta helburu bakarra hobeto uler dadila izanik– 1999ko Aurrekontu Orokorrei dagokien programaren testuko alderdi nagusiak deskribatzera mugatuko gara; izan ere, ia bat dator gainerako aurrekontuekin. Bestalde, 1995eko ekitaldia jadanik fiskalizaturik du Ganbara honek, eta horri buruzko ondorioak 1997ko 55. Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

“Ezgaituak” programa Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Familiaren eta Sektore Zerbitzuen Zuzendariordeak kudeatzen du, Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Atalaren bitartez –ikus 1. eranskina–.

1999ko aurrekontuan jasotako informazioaren arabera, programa honekin hauxe bilatzen da:

#### **Zuzendu nahi den edo aurre egin nahi zaion egoera**

Batez ere, honi dagokio:

- Pertsona ezgaituen laguntza integrala zain- tzea, bai osasunaren ikuspegitik bai hezkuntzaren eta beste esparru batzuen ikuspegitik.
- Horiek hezkuntzako, osasuneko, laneko eta abarreko sareetan txerta daitezen posible egitea.
- Ezgaituriko pertsonen eta euren legezko ordezkarien elkartegintza babestu eta sustatzea.
- Gaur egungo zentroak ezgaituen beharri- netara egokitzea, jarduerara eta/edo lanera bide- raturiko baliabideak eta bitartekoak sustatuz eta sendotuz.

#### **Programaren helburuak eta ekintzak**

Aurreko egoera hori zuzendu edo hari aurre egiteko, programako testuak honako helburu eta ekintza hauek ezartzen ditu:

- Lanerako prestatzeko zentroetan plazak sortzea eta jadanik daudenei bultzada ematea.

- Oztopo arkitektonikoak, hirigintzakoak, garraioetakoak eta komunikazioetakoak kentzeko neurriak sustatzea.

- Gizarteratzea errazten duten ekimenak babestea, horretarako laguntzak eta diru laguntzak irabazi asmorik gabeko elkarteei helaraziz.

- Laneratzeko neurriak har daitezten eta arlo honetan indarra duen legedia bete dadin sustatzea, Lan Departamentuarekin elkarlanean.

- Egoitzei dagokienez, beharriak definitzea eta arlo horretako baliabideak abiarazteko sustapen-lana egitea.

### Adierazleak

Honako adierazle hauek aipatzen ditu –zenbatetsi gabe agertzen dira–:

- Lanerako prestatzeko zentroetan sorturiko plazen kopurua.

- Oztopo arkitektonikoak kentzeko proiektu diruz lagunduen kopurua.

- Etxeko laguntza zerbitzuaren erabilzaila-kopurua.

- Diruz lagundutako elkarten kopurua.

- Ezgaitasunak dituzten pertsonentzat Nafarroako Gizarte Ongizatearen Zerbitzuan erreserbatutako lanpostuen kopurua.

Azpimarratu beharrekoa da 1995eko programako testuan zenbatetsita agertzen zirela bertako adierazleak. 1996tik aurrera, aipatu baizik ez dira egiten; hau da, zenbatetsi gabe.

### Langile-bitartekoak

Aurrekontu-informazioaren arabera, honakoak dira giza baliabideak:

Zentroa	Kopurua
Pertsona Ezgaituen Atala	7
S. José zentroa	113 (*)
Balorazio zentroa	21
Guztira	141

(\*) 17 plaza huts

### Aplikatzekoak diren arauak

Araudi orokorretik, honako hauek aipatuko ditugu, programan daukaten eragina kontuan izanik:

- 120/1992 Foru Dekretua, Gizarte-zerbitzuen arloko itunei buruzko 20/1985 Foru Legea garatzen duena.

- 94/1992 Foru Dekretua, Gizarte-zerbitzuen, kirolaren eta gazteriaren arloko diru laguntzak arautzen dituena.

- 8/1997 Foru Legea, Diru laguntzak esleitu, kudeatu eta kontrolatzeari buruzkoa.

- Nafarroako Gizarte Ongizateko Institutuaren Erabakia, 1997ko ekainaren 18koa, zeinaren bidez zerbitzuetako tarifak onesten baitira.

- 10/1998 Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzkoa.

### 1999ko aurrekontu-datuak

Programak 1999rako hasiera batean dituen kredituak hauexek dira:

Gastuak	Hasierako kreditua
Langileak	525
Arruntak, ondasun eta gastuetan	75
Transferentzia arruntak	2.510
Kapital-transferentziak	30
Guztira	3.140
<hr/>	
Diru-sarrerak	
Tasak	46
Guztira	46

Azkenik, 2. eranskinean jasota dago programaren bilakaera 1995etik 1999ra bitarteko ekitaldietarako.

## II. HELBURUA

Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, eta Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak eginiko eskaerari erantzunez, 2000ko Jarduketa Planean sartu da "Ezgaituak (1995-1999)" aurrekontu-programaren fiskalizazioa.

Parlamentuko eskaera bost urteri buruzkoa bada ere, gure lana, funtsean, itxitako azken aurrekontuaren –1999– berrikuspenean gauzatu da, eta aurreko ekitaldietara jo dugu giltzarri diren hainbat gaitan; nagusiki, laguntzen eta diru-laguntzen emate, jarraipen eta kontrolari eta itunei buruzkoetan. Era berean, aipatu beharrekoa da 1995eko ekitaldia jadanik fiskalizatua duela Ganbara honek (ikus 1997ko 55. NPAO).

Beraz, lan hau egitean, Kontuen Ganbarak honako helburu hauek erdietsi nahi ditu:

- 1999rako ekitaldirako programako aurrekontu-betetzeak, epigrafe ekonomiko guztiei dagokiez, hari egoztekoak diren gastu eta diru-sarrera guztiak jasotzen dituela egiaztatzea, horien egokitasunari buruzko iritzia eman ahal izateko.

- Programazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa den legezketasun printzipioa bete ote den egiaztatzea.

- Programaren arduradun diren administrazio-unitateek ezarritako barne-kontrolko sistemak ebaluatzea, eta, hala behar bada, horiek hobetze-ko egokitzat jotzen diren gomendioak proposatzea.

- Programako ekintzetan zein mailatako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia lortu den aztertzea.

- Ganbara honek 1995eko ekitaldiari buruz eginitako txostenean egindako gomendioak zein neurritan bete diren jakitea.

### III. NORAINOKOA ETA MUGAK

#### III.1. NORAINOKOA

Aurreko helburuak kontuan hartuta, lanaren arreta zuzendu da bai aplikatutako administrazio-prozeduretara, bai programaren 1999ko aurrekontura; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrollean beharrezkotzat jo ditugun zenbait alderdi ere aztertu eta ebaluatu dira lan horretan, eta baita programa betetzerakoan lortu diren eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia mailak ere.

Aurreko idatz-zatietan adierazi den bezala, Parlamentuak eginiko eskaera 1995etik 1999ra bitarteko epeari buruzkoa zen arren, fiskalizazioa funtsean azken ekitaldi horri buruzkoa izan da, nahiz eta kudeaketa-puntu nagusiek (eskaerak barne hartzen dituen ekitaldietan eman eta kontrolaturiko diru laguntzak eta aurrekontuek izandako osaera eta bilakaera) izandako funtzionamenduaren 1995etik aurrerako eboluzioa ere berrikusi den –1995eko ekitaldia jadanik fiskalizatua dauka Ganbara honek–.

Metodologiari dagokionez, Kontuen Ganbarak aplikatu ohi dituen programak aplikatu dira; programa horiek Ganbararen auditoretza gidetan jasotzen dira, eta Espainiako Estatuako Kanpo Kontrolko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako Sektore Publikoko Auditoretza Printzipio eta Arauen barrenean garaturik daude.

Bestalde, hainbat laneratze-neurriren benetako eragina jakiteko asmoz, zirkularrak igorri dira Nafarroako Gobernuako erakunde autonomo eta departamentuetara eta biztanle gehien duten udal-letara –horien guztien zerrenda 3. eranskinean agertzen da–, honako hauei buruzko informazioa eskatzeko:

a) Ehuneko 33 edo gehiagoko ezgaitasuna duten langileek lanpostu hutsen ehuneko 3 bete ahal izan dezaten, lanpostu huts horien erreserba egin behar izatea betetzen ote den (Langileen Estatutuaren Testu Bateratuko 7. Xedapen Gehigarria). Aplikazio-epea, 1995etik 1999rako.

b) Administrazio-baldintza partikularren orrietan lehentasuna ematen ote zaien, kontratuak esleitzerakoan, plantillan langile minusbaliatuen gutxienerako kopuru bat duten enpresei (Kontratuei buruzko Foru Legearen 62. artikulua eta 9 eta 14. Xedapen Gehigarriak). Aplikazio-epea: 1998ko abuztutik 1999ko abendura artekoa.

#### III.2. MUGAK

Programaren betetzean erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila aztertzea lortzeko garaian eragina izan dute neurtu ahal izateko moduko helburuak garatu ez izanak, adierazle zenbatetsi eta helburuekin zerikusia duenik ez egoteak eta haren egokitasun- eta betetze-mailaren jarraipen sistematikorik ez egoteak.

Zirkularizazioari dagokionez, emandako datuak ez dira egiaztatu eta laneratzea lortzeko hartutako legegintzako zenbait neurriren benetako eraginari buruzko gure eskaerari ez zaio erantzun honako erakunde honen kasuan:

- Eguesko Udala

Txostena lau ataletan egituratuta dago: horietan agertzen dira hala helburuak nola iritsitako ondorio nagusiak. Atal horiek osatuz, sei eranskin daude, non ondorio nagusiei buruzko informazio osagarri eta argigarria biltzen baita.

Azterketa-lana 2000ko otsailtik apirilera bitarteko hilabeteetan egin du Auditoretzako bi teknikari eta auditore batek osaturiko talde batek, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko eta gainerako organismo eta erakundeetako langileei eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

#### IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azalduko ditugu eginiko lanean oinarrituriko hainbat gogoeta eta ondorio orokor, eta, horiekin batera, kasuan kasuko gomendioak.

##### 1.- PROGRAMAREN HELBURUA

Minusbaliatuen 1999ko Erroldako datuen arabera –ikus 4. eranskina–, aztergai dugun arazoa pairatzen duen nafar populazioari buruzko daturik aipagarrienak hauek dira:

- Minusbaliatuak 31.003 pertsona dira guztira; hau da, Nafarroako populazioaren ehuneko 6. Horietatik, ehuneko 44 Iruñerrian daude.

- Minusbaliotasun-motei dagokienez, ehuneko handiena egiten dutenak hezur eta giltzaduretako arazoek eta eritasun kronikoek eragindakoak dira, guztizkoaren ehuneko 53 hartzen baitute.

- Legezko minusbaliotasun-mailaren ikuspegitik, ehuneko 60k ehuneko 33 eta 65 bitartekoa du, eta ehuneko 22k ehuneko 75 baino gehiagoko minusbaliotasuna dauka.

- Guztizkoaren ehuneko 42k 66 urte baino gehiago dauka, eta ehuneko 16k beste pertsona baten laguntza beharrezkoa du.

Bestalde, jende-multzo honek, lanaren ikuspegitik, Nafarroako batez bestekoa baino hiru bat aldiz handiagoa den langabezia-tasa pairatzen du, eta lan-egoera horretan askoz ere denbora luzeago irauten du.

Beraz, aztergai den “Ezgaituak” programa honek bilatzen duena da populazio-multzo horren gain hiru ildori jarraituz jardutea:

- Pertsona horiek artatze integrala (osasunaren, hezkuntzaren, lanaren eta abarren ikuspegitik) izan dezaten zaintzea.

- Horiek sare guztietan, eta, bereziki, lanarenean, txertatu ahal izan daitezen bultzatzea.

- Pertsona horien eta dituzten legezko ordezkarien elkartegintzari sostengu ematea.

Edukiaren ikuspegitik, 1995eko ekitaldiarekin alderatuz gero, programa honetatik hainbat jarduera atera dira, zeinak gaur egun beste programa batzuetan kudeatzen baitira. Hain zuzen ere, honakoak:

- Minusbaliatuen gizarteratzeari buruzko Lege-  
tik eratorritako prestazioak (LISMI pentsioak).

- Etxeko Laguntza Zerbitzua.

Bestalde, aztergai dugun programan ez dira biltzen pertsona-talde horri laguntzeko ekintza

guztiak; izan ere, haren programaziotik eta, horrenbestez, haren kudeaketatik at baitaude honako hauek, gutxienez:

- Zentro berekietako inbertsioak: 242 milioi 1999an.

- Oztopo arkitektonikoak kentzeko transferentziak: 28 milioi.

- Zentro itunduetan obrak egiteko transferentziak: 80 milioi.

Aurrekontu-ekintza horiek Departamentuari zuzenean atxikirikoak dira; hortaz, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko kudeaketa-esparruaren kanpokoak dira, eta, hori dela-eta, programaren helburuen tratamendu orokorrean disfunczioak ager daitezke.

Era berean, ikuskapen-lanak Departamentuko Idazkaritza Teknikoari atxikitako atal batetik egiten dira.

*Hauxe gomendatzen dugu: Nafarroako Gobernuak eginiko ekintzen ikusmira osoa eskaintzea - rren, ezgaituen tratamenduari zerikusia duten jarduerak guztiak aurrekontu-programa bakar batean bilduta egotea komenigarria ote den azter dadila.*

##### 2.- PROGRAMAREN TAXUERA ETA EGITURA

Aurrekontu-programaren taxuera eta egitura, gure iritziz, ez da osoa; izan ere:

- Nahiz eta helburuak bat etorri burutu beharreko jarduerarekin, jarduera hori oso orokorki definitzen dute, eta ez daude zenbatetsita; aurrekontu-kredituei loturik ere ez daude.

- Erantsirik agertzen diren adierazleak ez daude helburuekin espreski lotuta, ez eta zenbatetsita ere. Gainera, 1999ko ekitaldirako programaren barnean benetan egiten diren jardueretara ez dira espreski eguneratu.

- Helburuen exekuzio eta betetzeari buruzko berriazko jarraipenik ez da egiten, nahiz eta Institutuaren urteko oroit-idazkian programari buruzko hainbat gai aztertzen diren.

##### Gomendioak:

*Ganbara honek esaten jardun duenari jarraituz, Nafarroako Gobernuak programen arabera aurrekontu-egitura eta -praktikak duen erabilgarritasuna –bai kudeatzailearentzat, bai Parlamentua -rentzat– aztertu behar ditu, horrek behar bezalako programazio ekonomiko baterako baldintzak betetzen ote dituen egiaztatzeko. Nafarroako Gobernuan 2001ean ezartzekoa den aurrekontu-kudea -*

ketako eredu berria hartzea gogoeta hori egiteko modu aproposa izan daiteke.

*Institutuak ahalegin osagarri bat egin behar du programa behar diren tresnez hornitzeko, horien bidez programaren helburuak zenbatetsi, horien betetze-maila egiaztatu eta alderatu eta haren exekuzioan gerta daitezkeen desbiderapenak aztertu ahal izateko.*

Ildo horretatik, honako hauek ebaluatzeraz zuzenduta egon litezke adierazleak:

- Gastu per capita guztizkoa zentro berekietan eta itunduetan, kontuan izanik bai adina, bai ezgaitasun-mota.
- Artatu gabeko populazioaren ehunekoa.
- Egoitzetan dagoen populazioa.
- Eguneko zentroetan dagoen populazioa.

- Etxean laguntza daukan populazioa.
- Oztopo arkitektonikoak kentzea.
- Lanerako prestatzeko zentroyen jarraipena.
- Laguntzak jasotzen dituen populazioaren zein ehunekori eman zaion jaso ditzakeen prestazioen berri.
- Finantza-ahalegina edo gastuen eta diru-sarreraren zerrenda.
- Ikuskaturiko zentroyen ehunekoa, aurreikusita-koarekiko.

### 3.- 1999KO PROGRAMAREN AURREKONTU-BETETZEA

1999rako programaren aurrekontuaren likidazioak honako zenbateko hauek (milioitan) agertzen ditu, kapitulu ekonomikoka:

Gastuak	Hasierako kreditua	Bateratua	Onetsia	bater/onets., %
Langileak	525	409	407	99
Arruntak	75	75	67	89
Transf. arruntak	2.510	2.569	2.540	99
Kapital-transf.	30	43	43	100
Guztira	3.140	3.096	3.057	%99

Diru-sarrerak				
Tasak	46	46	45	98
Guztira	46	46	45	%98

Programan aurreikusitako gastuek NGOiak 1999rako duen guztizkoaren ehuneko 20 egiten dute, eta izaera arrunteko eragiketen ia erabateko nagusitasuna antzematen da, inbertsio-eragiketarik Institutuarekin loturarik ez duen beste programa batetik kudeatzen baitira. Gastuei dagokienez, itunetarako transferentzia arruntak eta elkarreterako diru laguntzak dira aipagarri batez ere, gastuaren ia ehuneko 80a egiten baitute.

Horrenbestez, 1999ko aurrekontuan garrantzitsuenak diren gastu-multzoak honako hauek izan dira (milioitan):

Gastu-kontusaila	Zenbatekoa
Langileak	407
Itunak	1.822
Lanerako prestatzeko zentroak	427
Elkarreterarako beste diru laguntzak	144
Besteren zentroetako egonaldiak	122

Laguntzen eta diru laguntzen kontusailek izan dituzten hartzaile nagusien berri 5. eranskinean ematen da.

Finantza-berrikuspenerako lanaren ondorio gisa, esan behar da 1999ko aurrekontu-likidazioak modu egokian agertzen duela eginiko jardueraren dena den:

- Langileria-gastuek ez dute behar bezala islatzen izaera horretako gastua; izan ere, ataleko zuzendarien ordainsariak, ordezkapenak, aldi baterako kontratazioak eta nominako ordainsari aldagarriak beste programa batzuei egozten zaizkie.
- Itunetako gastuak kontabilizatu dira onuradunek ordaindutako kuoten sarrera konpentsatu ondoren.
- Sortzapen-irizpidea ez da zorrotzasunez aplikatu onuradunek ordaindu gabeko kuotak erregistratu eta dagokien aurrekontura egotzeko.

Nafarroako Gobernuaren gainontzeko programetan gertatzen den bezala, fiskalizaturiko programak ez du informaziorik agertzen zerbitzu orokor eta laguntzakoetatik eratorritako zeharkako kostuei buruz.

#### Gomendioak:

*Kontabilitatearen eta aurrekontuen arlokoak diren eta kudeaketa publikoari aplikatzekoak diren printzipio eta irizpideak ahalik zorrotasun handienaz aplikatzea.*

*Gaur egun programaka antolaturik dagoen aurrekontu-egiturari buruzko berrikuspen-fase horren barnean, kontuan har bedi zama orokorrak eta gainerako zama zeharkakoak banatzeko sistema sinplifikatu bat ezartzeko ideia; zerbitzu publikoen kostuaren zehaztapena arrazionalagoa eginen lukeen sistema bat, hain zuzen ere.*

*Azkenik, 1995etik 1999ra bitarteko aurrekontuetan programako gastuek izandako bilakaerari dagokionez, azken ekitaldi honetan programak 1995 eta 1996ko ekitaldietan zeuzkan gastu-maila orokorrak izan ditu berriro –3057 milioi inguru–. Dena den, horien osaera nabarmen aldatu da, urte horietan LISMI pentsioak –700 milioi inguru– programan sartuta baitzeuden, eta gaur egun zenbateko hori, nagusiki, itunetarako eta lanera bideratzeko zentroetarako zuzkidurak gehitzeko erabiltzen da.*

#### 4.- LEGEZKOTASUNA

Oro har, programako aurrekontua legezkotasun-printzipioari jarraituz bete da.

Hala ere, hainbat neurri gomendatu behar dira, honetarako:

*Diru-laguntzen emateari buruzko araudiak diru-laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeari buruzko 8/1997 Foru Legeari egokitzea; bereziki, honako arlo hauetan:*

- *Aldez aurretik zenbatetsi eta lehentasunaren arabera sailkaturiko hautaketa-irizpideak.*
- *Emandako diru laguntza ez-izendunak zenbatesteko irizpideak finkatzea.*
- *Justifikazioa aurkezteko prozedurak eta euren kalitatea normalizatzea.*

#### 5.- ANTOLAKETA ETA BARNE-KONTROLA

Eginiko lanean oinarrituz, honako iruzkin eta gomendioak azpimarratu nahi ditugu:

#### **Funtzionamendua administrazio-lanaren eta kontabilitatearen ikuspegitik**

*Kontratazio-espeditteen artxibatzea hobetzea, dokumentu guztiak administrazio-espeditte bakarrean artxiba daitezen.*

*Nomina epe egoki eta aproposetan kontabilitatzea, kudeaketarako tresna gisa balio dezan, eta ez betekizun hertsiki formal bat betetzeko. Horrek berarekin dakar aurrekontuak behar bezala egin beharra eta, kasua bada, behar diren kreditu-aldaketak azkar izapidatzea.*

*Garbiketa-produktuen eta elikagai ez-galkortarako lehiaketa zentralizatuaren ondoriozko emaitza praktikoak aztertzea, zeuden igurikapekin bete ote diren egiaztatze, eta zentroek adierazitako aldaketa eta iradokizunak prozesuan sartzen saiatzea.*

*Tarifen, kuoten eta moduluen urteroko eguneratzea horiek aplikatu behar direneko ekitaldia hasi baino lehenago ezartzea.*

*Prozedura-multzo bat ezartzea, sistematikoki kontuan hartuko dituztenak diru-sarrerak likidatzeko prozesuak –bai Institutuak berak eginikoak bai zentro itunduek eginikoak–, diru-sarreraren kontrol eta erregistrokoak eta ordaindu gabeen izapida-tze-hasiera, jarraipen eta erregistrokoak.*

*Ondasun-kontrola eta zorraren onarpena. Laguntzen onuradun direnen errenten gain eginkoa osatu beharra dago haien jabetzakoak diren ondasunen gain eginiko kontrol zorrotzarekin –kontrol hori Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin zuzenean koordinatuz eginen da–, laguntza publikoen zenbatekoa ekitate sozial handiagoaz zehaztu ahal izateko eta, kasua denean, sortzen den zorra onesten dela bermatzeko. Ildo horretatik, ezgaitua Institutuak famili unitate bereziko eta beregaintzat hartzeak ez du, horren kuota zehazteari begira, ekitatea ziurtatzen, ez baitu famili ondarea kontuan hartzen.*

#### **Zentro berekiak**

Halakotzat jotzen dira titulartasun publikokoak izanik Nafarroako Gobernuak zuzenean kudeatzen dituenak. 1999an bi laguntza-zentro bereki daude –San José eta Lur Gorri; guztira, 91 plaza–, eta, bestalde, Minusbaliatuak Kalifikatu eta Baloratzeko Zerbitzua, zeina minusbaliotasunak diagnostikatu eta kalifikatzeko ardura baitu.

Eginiko azterketan oinarrituz, hauxe gomendatzen dugu:

*Zentro horien kudeaketaren alderdi nagusiei eta zerbitzu zentralekin dauzkaten harremanei buruzko arauak ematea.*

*Informazio ekonomiko eta aurrekontuetakoa lortzeko tresnak sortzea, horien bidez honako hauek egin ahal izateko: aipagai ditugun zentroetan emandako prestazioa benetan zenbat kostatzen zehaztea eta hori ondoren aztertzea.*

*San José zentroa. Presakoa da erabakitzea gaur egun dagoen tokian segitu behar duen ala zentro berri bat eraiki behar den. Edozein dela ere kasua, instalazioek behar bezala funtzionatzen dutela eta seguruak direla bermatu ahal izateko eraberritze-neurriak hartu behar dira.*

### **Itunak**

Zentroak itunduak direla jotzen da baldin eta entitate pribatu batek zerbitzua ematen badu Administrazioarekin sinaturiko kontratu bat dela bide, kontuan hartu gabe zentro horiek titulartasun publiko edo pribatukoak ote diren.

1999an 3 entitaterekin sinaturiko 5 itun daude; guztira 11 zentro kudeatzen dituzte –583 plaza–, eta kostua 1820 bat milioi pezetakoa da.

Eginiko lanean oinarrituz, hauxe gomendatzen dugu:

*Zentroek bidalitako urteko kontuak, auditore-tza-txostenak eta gainontzeko dokumentazioa sistematikoki berrikustea, haien kudeaketaren gain behar bezalako kontrol ekonomikoa ezartzen dela eta zentro horiek bideragarriak direla bermatzeko. Kontuan har bitez laguntza-beharrizanak eta kasuan kasuko moduluaren zenbatekotzea.*

### **Lanerako Prestatzeko Zentroak**

Minusbaliatuen gizarteratzeari buruzko 13/1982 Legean arauturik daude. Jasaten duten minusbaliotasun-mailaren ondorioz enpresa batean edo enplegurako zentro berezi batean txertatzea ezinezkoa duten minusbaliatuei lanera bideratzeko terapiako eta egokitzapen pertsonal eta sozialeko zerbitzuak ziurtatzea dute helburu zentro hauek.

1999ko abenduaren 31n Nafarroan lanera bideratzeko 6 zentro daude guztira; 618 pertsona artatzen dituzte, eta Nafarroako Gobernuarengandik 427 milioiko zenbatekoa egiten duten laguntzak jaso dituzte.

Eginiko azterketatik ondorioztatzen da laguntza horien arauketa, jarraipen eta kontrolerako prozedura hobetzea beharrezkoa dela. Horregatik, hauxe gomendatzen dugu:

*Laguntza-prozesu guztia arautzea, eta honako hauek berariaz har daitezela kontuan:*

- Lortu nahi diren helburuak
- Finantzaketa publiko eta pribatua
- Diru laguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak.
- Artaturiko pertsonen kopurua.
- Diru laguntza benetan aplikatu izateari buruzko dokumentazio frogagarria.
- Zentro berean kokaturik baldin badaude, argi zehatz bitez Enplegurako Zentro Bereziek (lan-arloko legeriari lotuak) eginiko jarduerak eta Lanerako Prestatzeko Zentroek (lan-arloko legeriari lotu gabeak) eginikoak.
- Kontrol eta jarraipen jarduerak Lan Departamentuarekin koordinatzea, hori baita lan-arabideko laguntzen arduradun.
- Zentro horietako langileei emandako sariak ikuskatzea, benetan neurri terapeutiko baten eragina izan dezaten. Ahalegina egin bedi sari horien zenbatekoa errealitate edo egoera bakoitzari egokituriko irizpide objektiboen bidez finka dadin <sup>(1)</sup>.
- Sarrera-eskaeren, ezezko erantzunen eta espedienteen gaineko kontrola.

### **Bestelako laguntzak**

*Ibilgailuak erosteko diru laguntzak. Berma bedi diruz lagunduriko ibilgailuak laguntza hori jaso duenaren izenean segitzen duela lau urte igaro ondoren.*

*Besteren zentroetan egoteko laguntzak. Foru Komunitatean adimen urridun kronikoendako plaza gabezia konpontzen ez den bitartean, arautu egin behar dira bai laguntza hauek kudeatzeko prozesua bai adimen-osasuneko zerbitzuen eta Institutuaren beraren arteko harremanak.*

### **Zentrozen ikuskapena**

Ikuskapena. Laguntzen benetako aplikazioaren eta laguntzak jaso dituzten zentroek betetzen dituzten baldintzen gain a posteriori eginiko kontrol-prozesuaren barnean sar bitez ikuskapen-lanak.

## **6. GOMENDIOEN BETETZE-MAILARI BURUZKO JARRAIPENA**

1995eko Txostenean, Kontuen Ganbarak bereziki nabarmendu zituen itunen kontrol eta

(1) Azterturiko zentroetako sariak hilabeteko 10.000tik 85.000 pezetara bitartekoak dira.



jarraipenean zehar antzemandako akatsak, zeinak, diru laguntzaren benetako aplikazioari buruzkoak ez ezik, itunduriko erakundeen bideragarritasun ekonomikoari berari buruzkoak baitziren; horrela, adierazi zuenez, sinaturiko sei itunetatik lauk arazoak izan zituzten eta amaiazi behar izan ziren, edo administrazioak esku hartu eta amaiazztear zeuden.

Itun horiei dagokienez, zeinetatik gehienak iraingirik baitaude, hauexek dira 1999ko gertaera nagusiak:

- PROSNA. Nafarroako Gobernuak 110 milioi ordaindu dizkio Gizarte Segurantzari, zorreatatik. Zorra enpresari erreklamatzeari ez zaio oraindik ekin.

- GESNA. Nafarroako Gobernuak Diruzaintzari 295 milioiko zor bat eskualdatu zaio, horren kobrantza kudeatzeko.

- GESNA. Epai bat dela bide, NGOIak bere gain hartu behar ditu erabiltzaileek ordaindu gabeko kuotak, zeinek 8 milioiko zenbatekoa egiten baitute.

- SOS LEYRE. Itunaren amaiazzpenari buruzko errekurtsua aurkeztu du. Estatu Kontseiluaren txostenik ez dagoela alegatu du.

Gaur egun hiru elkarte-enpresarekin sinaturiko bost itun daude, eta itun horien gaineko kontrol-prozesuak, oro har, hobetu egin dira, bereziki ikuspegi ekonomikoari dagokionez; horretarako, Institutuaren organigramaren barnean berariazko atal bat eratu da.

## 7. ERAGINKORTASUNA, EFIZIENTZIA ETA EKONOMIA

Helburuei eta adierazleei buruzko iruzkinak –ikus 2. ondorioa– direla-eta, ezin dugu iritzirik eman programaren betetzean lorturiko eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila orokorrari buruz.

Hala ere, hainbat iturritatik lorturiko datuetan oinarrituz, azterketa operatibo partzial baterako behintzat garrantzitsuak diren informazio batzuk lortu dira:

### **Ezgaituen laneratzea lortzeko lege-neurrien benetako eragina Foru Administrazio Publikoetan: lanpostu-erreserba eta kontratuen esleipenerako lehentasuna**

Txosteneko III.1. atalean adierazten den bezala, eta ezgaituen laneratzea lortzeko zenbait lege-neurriren benetako eragina zein den jakiteko asmoz, zirkularrak igorri zitzaizkien Gobernu departamentuei eta Nafarroako udal nagusiei,

azalpena eman zezaten ehuneko 33 edo gehiagoko ezgaitasuna daukaten langileek lanpostu hutsen ehuneko 3 betetzeko erreserbaren aplikazio praktikoari buruz eta kontratuen esleipenari dagokionez plantillan langile minusbaliatuen kopuru zehatz bat daukaten enpresei administrazio-klausula partikularren orrietan lehentasuna ematea erabakitzeari buruz.

Ondorioak hauexek dira:

a) Ezgaituentzako postu-erreserba.

Jasotako informazioaren arabera, aztergai dugun epeko emaitzak honakoak dira:

#### Nafarroako Gobernua (1995-1999)

Zentroa	Deituriko lanpostuak	Beteriko lanpostuak	Minusbaliatuek beterikoak
Adm. gunea	642	609	7
Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerb.	411	406	6
Hezkuntza	68	68	-
Guztira	1.121	1.083	13

Beraz, deituriko lanpostu guztietatik minusbaliatuek beterikoak ozta-ozta ehuneko 1,16 dira; ehuneko hori 1,2ra igotzen da erreferentzia gisa beteriko lanpostuak hartzen badira.

#### Toki entitateak (1995-1999)

Udala	Deituriko lanpostuak	Beteriko lanpostuak	Minusbaliatuek beterikoak
Burlata	28	n/c	1
Guztira	28	-	1

Erreserba gauzatu duen udal bakarra Burlatakoa da; hain zuzen, 1997an beteriko lanpostu bat da (horrek egiten duen ehunekoa 3,6koa da). Gai-nontzekoek ez dute aplikatu –Iruñeko eta Barañaingo kasuak–, edo erreserba ez da aplikatzen, kasuan kasuko eskaintza publikoaren zenbateko urriaren ondorioz.

Beteriko lanpostuen izaerari dagokionez, 10 administrari-laguntzaileenak dira, 3 peoi eta zerbitzu orokorrenak, eta 1 informazio-sistemen ofizialena.

b) Kontratu-esleipenerako lehentasuna

Oro har, esan daiteke lehentasunari buruzko lege-xedapenak zorrotasun handirik gabe jasotzen direla klausula-orrietan, baina haien indarraldi nahiko laburra –1998ko abuztutik aurrera–, proposamenen berdintasunari buruzko baldintza eta zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak esleitu ahal izateko esleipen-hartzaileak 25 langile baino

gehiago eta, gutxienez, horien ehuneko 3 minusbaliatu izatea eskatzea direla medio, zaila da haiek benetan aplikatzea; bereziki, toki entitateen kasuan.

Jasotako informazioan oinarrituz, lehentasun hori toki-esparruaren barneko ezein esleipenetan gauzatu ez dela egiaztatu ahal izan da. Nafarroako Gobernuari dagokionez, lehentasunari buruzko xedapena Gizarte Ongizatearen Institutuko 4 kontratutan, Lan Osasuneko Institutuko bitan eta Kirol eta Gazteriaren Institutuko batean aplikatu dela egiaztatu da.

Aurreko ondorioek agerian uzten dute neurri horien eragin urria; hori dela-eta, hauxe gomendatzen dugu:

*Ezgaituak laneratzeko neurriak aldi-aldi ebaluatzea.*

*Eginiko ebaluazioaren emaitzen arabera ego-ritu edo aldatzea neurri horiek.*

Azkenik, 2000ko martxoan, Gizarte Ongizateko Departamentuak foru agindu bat onetsi du. Horren bitartez, "obrak eta ekipamenduak lehiaketa bidez esleitzeko irizpideak" ezarri dira. Agindu horretan, gizarte bazterkeriaren aurkako planari jarraituz, esleipen-irizpideen artean "gizarte-klausulak" deiturikoak agertzen dira. Horiekin baloratuko dira –posible den gehieneko puntuazio guztiz-

koaren ehuneko 3arekin– gizarteratze-prozesuan dauden langileak kontratatzen dituzten enpresak edo gizarteratze-enprekin edo enpresa solidarioekin zerbitzuak subkontratatzeko dituztenak. Halaber, gutxienez plantillaren ehuneko 2 langile minusbaliatuz osatua daukaten enpresei lehentasuna emateko lizitatzailleek bete beharreko baldintzak zehazten dira.

#### **Zentro berekiak eta itunduak: moduluak eta finantzaketa**

1. taulan jasotzen da zentroyen kopurua –bai berekiak, bai besterenak–, bai eta itunduriko planen kopurua ere. Horri buruzko azterketan oinarrituz, hauxe azpimarratzen dugu:

- Aztertutako 13 zentroetatik, bi berekiak dira eta Gobernuak kudeatzen ditu; gainontzekoak, 11, ekimen pribatuak kudeatzen ditu, horietako batzuk jabetza publikokoak badira ere (adibidez, Valle de Roncal eta Infanta Elena).

- Plazei dagokienez, ehuneko 14 kudeaketa publiko zuzenekoak dira –91–, eta ehuneko 86 itunduak daude –583–.

- Itunduriko entitateen kopuruari dagokionez, 1995. urtearekin konparatuz, sinplifikazio garrantzitsua gertatu da, entitate itunduak 6 izatetik gaur egun 3 izatera pasa baitira.

## 1. taula. Zentro berekiak eta itunduak

Entitatea	Zentroa	Artatze-erregimena	Plazak
Nafarroako Gobernua	S.José	Egoitza	80
	Lur Gorri	Egoitza	11
Agedna	Valle Roncal	Egoitza	120
		Eguneko zentroa	10
	La Atalaya	Egoitza	26
		Eguneko zentroa	16
	Santa María	Egoitza	29
		Eguneko zentroa	10
Servirecord	Mendebaldea	Etxebizitza funtzionala	14
		Eguneko zentroa	30
	Monjardín	Etxebizitza funtzionala	18
		Egoitza	61
	Oncineda	Eguneko zentroa	5
		Los Torchas	Etxebizitza funtzionala
Aspace	Ramón y Cajal	Egoitza	34
		Eguneko zentroa	100
	Uxane	Lanerako prestatzeko zentroa	16
		Infanta Elena	Egoitza
		Eguneko zentroa	12
	Guztira	13	-

2. taulan jasotzen da zentro itunduetan moduluaren kostuaren batez bestekoa zenbatekoa den; baita ere, San José zentro berekiaren gastua, erabiltzaileak ordaindu beharreko gehieneko tarifak eta erabiltzaile horrek benetan ordaintzen duen batez besteko kuota.

## 2. taula. Moduluak, tarifak eta kuotak (pezetatan)

Zentro-mota	Modulua/gastua, batez beste	Gehieneko tarifa (1)	Modulu gainera tarifa (%)	Kuota, batez beste	Tarifa gainera kuota (%)	Modulu gainera kuota (%)
Eguneko zentro itundua	2.352.697	(2)	-	112.293	-	5%
Egoitza-zentro itundua-Fisikoak	4.892.336	1.825.200	37%	586.941	32%	12%
Egoitza-zentro itundua-Psikikoak	4.684.460	1.581.840	34%	432.860	27%	9%
Zentro berekia-Psikikoak	6.114.620	1.581.840	26%	557.748	35%	9%

(1) 18 urtez gorakoentzako egoitza-zentroetan

(2) Kuote bat etorri behar dute ezarritako tarifarekin, zeina mantenu eta garraioaren benetako kostuaren arabera finkatzen baita.

Konparazio guztietan –eta, bereziki, batez besteko balioekin aritzean– nabaritzen diren salbuespen eta muga guztiak kontuan harturik, eginiko azterketatik honako ondorio hauek azpimarratu nahi genituzke:

- Nafarroako Gobernuarentzat eguneko zentro itundu bateko plaza batek modulu bakoitzeko duen gastua 2,4 milioikoa da; zentro itunduak egoitza-izaera badu, kostua 4,7 milioikoa da psiki koentzat eta 4,9 milioikoa fisikoentzat.

- Gobernuak kudeaturiko zentro psikiko bereki bateko gastuak 6,1 milioiko zenbatekoa egiten du; hau da, horren baliokide itundukoa baino ehuneko 31 gehiagokoa.

- Erabiltzaileak ordaindu beharreko gehieneko tarifen zenbatekoak moduluaren balioaren ehuneko 30 inguru eginen du.

- Erabiltzaileak benetan ordaintzen duenaren zenbateko erreala –haren errentari dagozkion gaien eta famili arazoien arabera tarifa egokituz– ozta-ozta iristen da plazaren kostuaren ehuneko 10era.

Aurreko datuek erakusten dute, alde batetik, zerbitzu publiko hau emateak Nafarroako Gobernuari ekartzen dion kostuaren hurbilketa bat, eta, bestetik, zenbaterainoko ahalmena dagoen gutxieneko kalitate-estandar batzuen barnean kostu hori mugatzeko bidea ematen duten neurriak hartzeko. Hori guztia, Ganbara honek 1995eko ekitaldiari buruz eginiko txostenean esan zuen hauxe gogoan izanik: “gizarteak hartu behar ditu gastu horiek bere gain, baliabide ekonomiko ezagatik pertsona bakar bat ere behar duen laguntzarik gabe ez dadin gera, baina, betiere, obligaziodun nagusiak ordeztu gabe”.

*Beraz, beharrezko deritzogu kudeaketa-neurriak indartzeari, Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin koordinatuz, ezgaituek edo zuzenbi-de zibilaren arabera haien izenean behartuak daudenek zorrak onartzearen gain eta haien errenta eta ondasunen gain behar bezalako kontrola egiten dela bermatzeko.*

### **Itxaron zerrendak**

Atalak itxaron zerrenda bat dauka, eta horrek agertzen ditu aurre egin ezin izan zaien laguntza-eskaerak.

Zerrenda hau patologien arabera kudeatzen da, eta eskaerak bi multzotan taldekatzen dira:

a) Euren etxeetan bizi diren eta zentro espezializatuetakoa laguntza behar duten eskatzaileak.

b) Gaur egun jasotzen duten laguntza-mota aldatzea behar duten eskatzaileak.

Itxaron zerrenda hauek ez daude lehentasunaren arabera antolatuta. Postuak esleitzen dira ezgaituaren eta plaza hutsa duen zentroaren ezaugarri zehatzen arabera.

Eskura dagoen informazioaren arabera, zentro espezializatuetakoa laguntza eskatu duten 97 pertsona eta laguntza-mota alda dadila eskatu duten 31 pertsona daude. Eskaera horien ehuneko 40 inguru 1999 baino lehenagokoak dira.

Aurreko zerrenda gorabehera, adimen-akats kronikoaren ondoriozko ezgaituentzako laguntza-aren arloan plaza defizit handia dago; horientzat, Nafarroak gaur egun ez dauka plaza berekirik, ezta itundurik ere. Oro har, gaixo horiek Foru Komunitatetik kanpoko zentroetan artatuak dira, eta Nafarroako Gobernuak diru laguntzak ematen ditu kostuaren zati bati aurre egiteko.

1999ko abenduan, diru laguntza horiek 75 pertsona ingururi eman zitzaizkien, eta horren ondorioz ekitaldi horretarako sorturiko kostua 120 milioikoa izan zen, gutxi gorabehera.

Dena den, berriki –2000ko abuztuan–, Nafarroako Gobernuak gaixo horientzat lehen plazak itundu ditu Foru Komunitatean bertan, hasieran kontrataturikoak 42 plaza badira ere. Halaber, defizit-egoera hori Nafarroako Plan Soziosanitarioaren barnean jasotzen da; Plan hori 2000ko ekainean onetsi zuen Nafarroako Gobernuak.

Laburbilduz, zentro espezializatuetakoa laguntzari dagokionez, botere publikoen erantzunik jaso ez duen eskari bat dagoela antzeman ahal izan da; hori dela-eta, hauxe gomendatzen dugu:

*Laguntza-beharrizan horiek asetzen saiatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.*

### **Ikuskapena**

Gizarte Ongizatearen Departamentuko Idazkaritza Teknikoari atxikia dago Ikuskapen Atala; beraz, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren hierarkia eta antolaketatik kanpo.

Bere jardueraren barne sartzan dira, besteak beste, departamentuak itundu eta diruz lagunduriko zentro eta entitateen ikuskapena (hirugarren adinekoenak, haurrenak, gazteenak, ezgaituek...), zentroak erregistratu eta baimentzea eta kexu nahiz erreklamazioak ebaluatzea. Jarduera hori egin ahal izateko, guztira 6 pertsona dauzka, plantilla organikoaren arabera: atalburu 1, A mailako 1, B mailako 3 eta D mailako 1.

Urteko ikuskapen-jarduera kontseilariak foru agindu bidez onesten du alde aurretik. Foru agindu horretan gizarte zerbitzuak ikuskatzeko urteko plana definitzen du.

Arreta ezgaituen arloan jarritz, 1999ko plan horretan eginiko txosten eta berrikuspenei buruz honako puntu hauek azpimarratzen ditugu, Atalak eskuratu dizkigun datuetan oinarrituz:

a) Detektaturiko puntu sendoak:

- Aurkezturiko salaketa, kexu eta erreklamazioen kopuruak behera egin duela antzeman daiteke. Horrela, 1999an guztira 2 salaketa aurkeztu dira dokumentu formalizatuan –zeina ekitaldi horretan abiarazi baita–. Horien funtsa lotuago dago arreta medikoari laguntzari baino.

- Zentroen funtzionamenduaren eta programen ikuspegitik, hobekuntza izan dela nabaritzen da.

b) Puntu ahulak:

- Higieziei, ekipamenduei, dekorazioari eta haltzariei dagokienez, azpiegitura hobetu daiteke.

- Zentro batzuetan ez da egin helburuetan eta ebaluazio-sistemetan oinarritua dagoen norbanakoen eta taldeen jarraipenik.

- Erabiltzaileen intimitate eta pribatasunaren arlokoak diren hainbat gaitan akatsak daude.

- Teknikaririk eza (hala nola psikologoak, pedagogoak, okupazio-terapeutak eta fisioterapeutak).

- Langileen prestakuntzarako eta birziklatzerako programak.

- Zaintzapeko etxebizitzaren defizita.

- Ebakuazio-planak.

- Tutoretzarik gabeko ezgaien egoera.

- Adimeneko gaixoentzako soluzioa.

Honako hau gomendatzen dugu:

*Zerbitzu eskudunek behar diren neurriak har ditzatela antzemandako akatsak konpontzeko.*

*Diruz lagundutako eta itundutako zentroak berrikusi eta horiei buruzko auditoretzak egiteko politikari eustea, eta gaur egun ikuskapen-atalak bere eskura dituen baliabideak nahikoak ote diren aztertzea.*

*Zentro guztietan erreklamazio-orriak ezgaituen edota bere ahaideen esku daudela kontrolatzea.*

*Urteko oroit-idazki bat egitea, zeinak ekitaldiko ikuskapen-planaren emaitzen eta ikusitako bilakaren berri eman beharko baitu.*

*Gaur egun, kalitate-ziurtagiri ofiziala lortzeko tramitazio-fasean dago Atal hau.*

### **Gizarte Zerbitzuetako Entitateak (6. eranskina)**

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak argitaratua den eta "Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuak. Zentro, zerbitzu eta entitatei buruzko azterketa. 1998" izena duen argitarapenean azaltzen diren datuetan oinarrituz, hauxe azpimarratuko dugu:

- 1984tik 1998ra bitartean, ezgaituentzako gizarte zerbitzuetako entitate-kopurua laukoiztu egin da, eta epe horretan entitateak 9 izatetik 35 izatera pasa dira.

- Entitate horien ehuneko 87-88 inguru Iruñerrian daude kokatuta, eta, 1998an, guztira 8036 bazkide daukate; hau da, Nafarroako populazioaren ehuneko 1,5.

- Ehuneko 50 elkarreak dira, eta ehuneko 77k ez du inolako zentrorik kudeatzen.

Aurreko datuek agerian uzten dute ezgaituen tratamendu integralean elkarrekin pribatuek presentzia handiagoa daukatela.

Ondorioz, eta amaierako laburpen gisa, Ganbara honek hauxe adierazten du:

- Ezgaituei laguntzeko jarduerak nagusiak programan sartuta badaude ere, programak ez du erakusten Nafarroako populazioko kolektibo honen alde Nafarroako Gobernuak egiten duen ahaleginaren irudi orokorrik; izan ere, zenbait ekintza beste programa batzuetan sarturik daude.

- Era berean, programaren agerpen formalak hainbat eskasia dauka, hala nola helburuak, adierazle zenbatetsiak eta horien jarraipena; horiek direla-eta, ezin da behar bezala egiaztatu kudeaketan lortu den eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila.

- Ganbara honek aurretik egin zuen txostenarekin alderatuz, entitate pribatuekin sinaturiko itunen tratamenduan hobekuntza nabaria izan dela antzematen da; batez ere, horien normalizazio, izapidaketa eta jarraipenari dagokienez. Hobekuntza hori osatu beharra dago, aipaturiko zentroek bidali behar duten urteroko kontabilitate-informazioaren gaineko kontrola a posteriori egiterakoan ahalegin handiagoa eginez.

- Lanerako Prestatzeko Zentroi emandako laguntzak behar bezala aplikatzen direla berma-

tzeko kontrol-neurriak hartu behar dira; zenbait ezgaituren tratamendu terapeutikoan zentro horiek hartzen ari diren garrantziaren ondorioz.

- Ezgaituak Foru Administrazio Publikoetan laneratzeari dagokionez aplikatu diren lege-neurriek izan duten benetako eragina oso apala izan da; horregatik, horiek egoki ote diren aztertu behar da.

- 1995eko egoerarekin konparatuz, zentro publikoetan eta itunduetan laguntza jasotzen duten ezgaituen errenten gaineko kontrola eta ordaindu beharreko kuotarekin horrek duen lotura nabarmenki hobetu direla antzematen da. Dena den, alderdi hori osatzeko neurriak hartu behar dira familia-ondasunaren jarraipena eta, kasu bada, sorturiko zorrak ordaintzera zuzenbide zibilaren arabera behartuak daudenean horiek onartu-

ko dituztela bermatzeko. Horretarako, nahitaezkoa da Nafarroako Gobernuako Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin lan egin eta koordinatzea.


- Zentro espezializatuetako laguntza eskatu dutenen itxaron zerrendak modu zentzuzkoan desagertarazteko neurriak hartu behar dira, eta ahalegina egin behar da laguntza espezializatu hori Foru Komunitatean bertan eman dadin.

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko irailaren 28an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. ERANSKINA. NAFARROAKO GIZARTE ONGIZATEAREN INSTITUTUTUKO ORGANIGRAMA, 1999



	Eiñkoek	Lanpostu lutsak	Aldi baterakoek
Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Atala	7	-	-
San José zentroa	104	19	42
Balorazio eta Diagnostiko Zentroa	18	3	3
Lur Gorri zentroa	7	1	1
<b>Guztira</b>	<b>132</b>	<b>23</b>	<b>46</b>

**2. ERANSKINA: "EZGAIUAK" PROGRAMAREN (1995ETIK 1999RA BITARTEAN) BETETZEA**

GASTUAK					
Aurrekontu lerroak	1995	1996	1997	1998	1999
Funtzionarioen guztizko ordainketa finkoak	252.744.399	262.924.776	282.641.330	307.522.212	330.278.087
Lan-kontratudun finkoen ordainketak	21.488.831	18.833.711	14.889.479	19.955.684	30.792.873
Gizarte Segurantza	29.318.797	28.519.501	28.160.345	34.979.005	46.453.172
1. Kap., guztira	303.552.027	310.277.988	325.691.154	362.456.901	407.524.132
Pertsonen laguntzarako lokala alokatzea	3.794.102	3.942.910	4.057.312	4.021.858	4.164.421
Eraikinak kontserbatu eta konpontzea	6.340.353	3.847.994	4.300.582	4.345.638	-
Ondasun higigarriak kontserbatu eta konpontzea	679.023	2.084.886	1.618.438	2.024.461	-
Bulegoko materiala	130.334	324.708	484.128	985.540	658.923
Prentsa, aldizkariak eta bestelako argitalpenak	76.085	72.111	147.349	138.474	313.783
Elikadura	14.863.912	16.016.819	15.478.010	14.942.476	22.978.828
Osasun laguntza	531.871	478.838	318.915	323.712	625.407
Osasun materiala	360.193	453.601	309.374	417.092	702.301
Hornidura bereziak	143.746	143.699	117.481	204.603	228.480
Komunikazioak	1.148.280	1.020.615	1.234.962	1.223.124	1.831.295
Garraio gastuak	153.493	184.393	118.122	164.299	126.865
Garbiketa kontratuak	2.437.668	2.273.509	2.560.068	2.618.743	3.243.824
Errealizaziorako laguntza teknikoa				1.140.800	2.175.000
Ura, gasa eta elektrizitatea	12.442.737	12.066.047	9.545.442	10.624.042	10.045.635
Berokuntza	7.653.308	7.743.832	7.515.971	5.589.139	10.452.141
Garbiketa	4.420.662	4.161.211	3.898.524	3.999.411	4.905.454
Jantziak eta oinetakoak	2.093.916	2.388.048	2.511.141	2.266.556	2.723.592
Hainbat gastu	1.146.502	971.876	2.303.742	1.273.280	2.220.087
Herritarren gizarte sentsibilizazio progr.	-	-	-	3.273.667	-
2. Kap., guztira	58.416.185	58.175.097	56.519.561	59.576.915	67.396.036
Etxeko laguntzarako ekintzak					12.000.000
Itunak eta hitzarmenak elkarrekin	1.401.201.281	1.428.478.391	1.555.661.704	1.639.626.713	1.822.028.452
Ezgaituentzako beka	8.278.000	7.596.000	4.404.000	-	-
Familia eta partikularrentzako laguntzak	63.385.282	69.482.545	7.806.736	13.657.814	14.655.456
Ezgaituek hainbat helburu lortzeko laguntzak		1.158.512	9.000.000	9.760.000	9.583.200
Beste elkarte batzuentzako diru laguntzak	375.750.983	411.703.418	432.371.936	495.233.412	513.979.260
Egonaldiak besteren zentroetan	85.917.031	100.435.892	109.829.406	111.806.179	122.327.302
Enplegu-ekimenetarako laguntzak	-	0	0	4.261.238	0
ANASAPSekin ituna	-	-	-	21.226.437	20.000.000
ADACENekin lankidetzan aritzeko akordioa	-	-	-	20.298.000	25.000.000
LISMI pentsioak	729.508.375	641.761.601			
4. Kap., guztira	2.664.040.952	2.660.616.359	2.119.073.782	2.315.869.793	2.539.573.670
Gutxitu fisikoen mugigarritasunerako laguntzak	22.866.326	26.550.554	34.971.557	25.000.000	39.599.645
Inbertsio txikietarako diru laguntzak	2.466.472	2.069.848	2.995.218	2.162.168	3.000.000
7. Kap., guztira	25.332.798	28.620.402	37.966.775	27.162.168	42.599.645
Gastuak, guztira	3.051.341.962	3.057.689.846	2.539.251.272	2.765.065.777	3.057.093.483



DIRU-SARRERAK					
Sn José zentroko diru-sarrerak	54.615.513	41.526.818	49.618.197	48.831.501	45.192.619
3. Kap., guztira	54.615.513	41.526.818	49.618.197	48.831.501	45.192.619
Diru-sarrerak, guztira	54.615.513	41.526.818	49.618.197	48.831.501	45.192.619

### 3. ERANSKINA. ZIRKULARIZATURIKO ENTITATEAK

#### Nafarroako Gobernua

Departamentuak	Erakunde Autonomoak
Lehendakaritza, Justizia eta Barne	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua
Ekonomi eta Ogasuna	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua
Toki Administrazioa	Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua
Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza	Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua
Hezkuntza eta Kultura	Nafarroako Lan Osasunaren Institutua
Osasuna	Nafarroako Emakumearen Institutua
Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria	
Herrilan, Garraio eta Komunikazioa	
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura	
Industria, Merkataritza, Turismoa eta Lana	

#### Udalak

Iruña	Tafalla
Tutera	Zizur Nagusia
Barañain	Atarrabia
Burlata	Egues
Lizarra	

### 4. ERANSKINA. MINUSBALIATUEN ERROL-DA

NGOlak 1999 urtearen amaierari buruz emandako datuei jarraikiz, Nafarroako Minusbaliatuen Erroldari buruz honako ondorio hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Minusbaliatuen guztizkoa 31.003 pertsonakoa da, eta Nafarroako populazioaren ehuneko 6 hartzen du. Sexuen arabera, ehuneko 54 gizonezkoak dira, eta ehuneko 46 emakumezkoak. Minusbaliatuen ehuneko 44 Iruñean dago.

• Minusbaliotasun-motaren arabera:

Minusbaliotasun-mota	Pertsona-kopurua	Ehunekoa
Hezur-artikulazioetakoa	8.150	26
Neuromuskularra	4.548	15
Eritasun kronikoa	8.401	27
Adimen-atzerapena	2.982	10
Buru-nahastea	3.070	10
Ikusmen-urritasuna	2.364	8
Entzumen-urritasuna	1.177	3
Adierazmen-urritasuna	285	1
Mistokoak	26	-

• Minusbaliotasun-mailaren arabera:

Minusbaliotasun-maila	Pertsona-kopurua	Ehunekoa
%33-45%	10.854	35
%46-65%	8.121	26
%66-75%	5.290	17
%75etik gora	6.738	22

• Adinaren arabera, honakoa da banaketa:

Adina	Pertsona-kopurua	Ehunekoa
18 urtetik behera	1.248	4
19-30 urte	2.331	7
31-45 urte	4.690	15
46-65 urte	9.848	32
66-75 urte	5.812	19
75 urtetik gora	7.074	23

• Bestelako jakingarriak

a) Ehuneko 12k –hau da, 3705 pertsonak– zailtasun larriak ditu garraio publikoak erabiltzeko.

b) Ehuneko 16k –4988 pertsonak– hirugarren pertsona baten laguntza behar izaten du.

**5. ERANSKINA. PROGRAMAKO GASTUEN ONURADUN NAGUSIAK**

Entitatea	Zenbatekoa 1999an (milioitan)	
Agedna	758	Ituna
Aspace	555	Ituna
Servirecord	387	Ituna
Tasubinsa	348	Diru laguntzak
Anasaps	105	Diru laguntzak
Anfas	37	Diru laguntzak
Adacen	25	Diru laguntzak

**6. ERANSKINA. EZGAITASUN FISIKO ETA PSIKIKOEN ARLOETAN DIHARDUTEN ENTITATEEN EZAUGARRIAK ETA KOPURUA.**

“Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuak. Zentro, zerbitzu eta entitateei buruzko azterketa. 1998” izena duen argitarapenean oinarrituz, honako taula hauek lortu ditugu Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate Departamentuaren

Gizarte Zerbitzuetako Entitate, Zerbitzu eta Zentroen Erregistroan sarturiko entitateei buruz.

Entitate kopuruaren bilakaera (1984tik 1998ra)

Ekitaldia	Entitateak-Ezgaitasun fisikoak	Entitateak-Ezgaitasun psikikoak
1984	6	3
1995	14	14
1998	19	16

Entitateak. Banaketa geografikoa eta bazkide kopurua (1998)

Eskualdeak	Entitateak-Ezgaitasun fisikoak	Entitateak-Ezgaitasun psikikoak
Iruñerria	16	14
Tutera eta beste	2	1
Nafarroatik kanpo	1	1
Guztira	19	16
Bazkide kopurua	4.343	3.693

Entitateen izaera juridikoa (1998)

Izaera	Entitateak-Ezgaitasun fisikoak	Entitateak-Ezgaitasun psikikoak
Elkartek	12	6
Fundazioak	3	5
Merkataritza sozietateak	3	4
Bestelakoak	1	1
Guztira	19	16

Kudeatzen dituzten zentroen kopurua (1998)

Kopurua	Entitateak-Ezgaitasun fisikoak	Entitateak-Ezgaitasun psikikoak
Zentro bat	1	2
Bitik bost zentrora bitartean	2	2
Bost baino gehiago	-	1
Zentrorik ez	16	11
Guztira	19	16



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--